

Kinpart⁵⁰

www.hurtzaroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2011ko
EKAINA





txinpart⁵⁰

www.hautzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hautzaro informatzen	3
Hatzak bete lan.....	12
Ikastolaren eguna	19
Euskararen txokoa	27
Gu ere kazetari	31
Nahaste berraste	38

ARGITARATZAILEA

Hautzaro ikastola

Elorrondo, z/g

20159 Oiartzun

☎ 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

2010-11 ikasturtea amaitu da

eta oportetean gozatzeko garaia iritsi da

Ikasturte honetako Txinpart 3. alea duzue eskua artean: ikasturtea bukatu den seinale. Eta, gainera, 50. zenbakia. Urrezko zenbakia, beraz. Erraz esaten da. Ale horietan guztietan saiatu gara gure ikastolako proiektuen, ekin-tzen... berri ematen. Izan ditugu gurasoen iritziak, ikasle ohienak, gure inguruan dabiltzan laguntzaileena, izan dugu, izan ditugu... Guztien ekarpenek izan dute eta dute beren txokoa. Norbera bere eginkizunetan aritu bagara ere, elkarrekin bagoaz gure proiektuan aurreratzen. Zorionez, lanerako ilusioa eta gogoa ez zaigu falta, eta horren guztia-ren adierazgarri ale honetan argitaratu ditugun hainbat lan, ekintza eta elkarriketa. Guztiak, gure ustez, oso interesga-riak. Horregatik, gustukoa izango duzuela espero dugu.

Bide batez, eskerrik asko gure Txinparten bidelagun izan zaituztegun guztiei. Eta zuri, betiko irakurle eta irakurle berri ere bai, gure kontuak jakiteko asmotan Txinpart esku artean hartzeagatik.

10-11 ikasturtea etorri ziren ikasle eta familia berriei ongi eto-rria eginez hasi genuen. Eta jada, uda honetan atsedena-rekin batera lanean jarraituko badugu ere, ikasturtea bukatu da. Eta Ikastola Egunean 4. mailako ikasleak, ofizialki, agur-tu genituen, agurtu gintuzten. Eskerrak eman genizkion elka-rri. Baina adierazi genuen eran jakin badakizue Haurtzaroko atea beti zabalik izango dituzuela. Duela 13 urte hasi zinet-eanean bezalaxe, beso zabalik hartuko zaituzteguna. Datorki-zuen ibilbide berrian zorte onena guztientzat!

Eta bukatzeko, ikasturteko lanaren sari modura oporrak ditu-gu atarian, merezitako udako oporrak. Gure aldetik, Haurtza-ro Ikastolatik, opor zorionsuak opa dizkizuegu guztioi.

Uda on-ona igaro!

IBILALDIK ETA EKINTZAK

Haur Hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HH1	EKAINAK 3	ARDITURRIKO ERREKARA	URAKIN GOZATU, HARRENANAK LANDU
HH2	MARTXOAK 8	OKINDEGIRA	OGIA NOLA EGITEN DEN IKUSTERA
HH2	MARTXOAK 24	ZINERA	PELIKULA IKUSTERA
HH2	MAIATZA	PISZINARA	URAREKIN GOZATZEA
HH2	MAIATZAK 25	LISTORRETARA	NATURAZ GOZATZEA
HH3	MARTXOAK 25	ELIZALDERA	AUZOA EZAGUTZERA ETA ALKATEAREKIN HITZ EGITERA
HH3	APIRILAK 1	ITURRIOTZERA	AUZOA EZAGUTZERA.
HH3	APIRILAK 5	ELIZALDE- GURUTZERA	URKABE MENDIA ETA AUZOA EZAGUTZERA.
HH3	MAIATZAK 10	AÑARRE BASERRIRA ETA LISTORRETARA	ERLAUNTZA IKUSTERA ETA EGUNA PASATZERA.
HH3	MAIATZAK 27	UDALETXERA	IBARGAIN MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIA ENTZUTERA
HH3	EKAINAK 1	ERGOIENERA	TREN BERDEAN ARDITURRIRA JOAN ETA MUSIKA TXOKOA BISITATZERA.
HH3	EKAINAK 9-10	ZARAUTZERA	ETAPAKO IBILALDIA EGIN ETA GAUA ELKARREKIN PASATZERA.

Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / Bigarren Hezkuntza			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH1	Otsailak 21	DBH4koen hitzaldia	Grezia gaia
LH1	Otsailak 21-25	Udal liburutegira	Irakurketa suspertze lanketa
LH1	Martxoak 21	Udal liburutegira	Ilustrazio gaietan trebatze tailerra
LH1	Martxoak 22-25	Udal liburutegira	Irakurketa suspertze lanketa
LH1	Martxoak 24	Oiasso museora	Erroma gaiaren lanketa dela eta
LH1	Martxoak 30	Maite Santestebanekin tailerra	Gozokiz egindako eraikuntzak egiten.
LH1	Martxoak 31	J.K. Igerabidekin elkarriketa	Euskaraz biziko kanpainaren barruan
LH1	Apirilak 5-8	Irakurketa txokora	Euskaraz biziko kanpaina barruan
LH1	Apirilak 6	Ibargaingo parkera	Plastika arloan zuhaitzak marrazte helburuarekin
LH1	Apirilak 8	Korrika ttikia	Korrika
LH1	Apirilak 8	Gelan	Ondo elikatzen bazara indartsu eta osasuntsu haziko zara tailerra
LH1	Apirilak 11	DBH4koen hitzaldia	Erroma gaia
LH1	Apirilak 14	Mendibilgo txarara	Natura gaia
LH1	Maiatzak 19	Cristina-eneara	Natura gaia
LH1	Maiatzak 26	Udal pleno aretoan kontzertua	Ibargaingo musika eskolaren gonbitea
LH1	Maiatzak 27	Udal liburutegira bisita	Hileroko bisita irakurmena suspertzeko
LH1	Maiatzak 27	Udal plenora	Agenda 21

Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / Bigarren Hezkuntza			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH2	11/05/5	Oiartzun irratia	Komunikabideak
LH2	11/05/11	Oiartzundik zehar	Ingurua ezagutu eta behatu
LH2	Hilean behin	Liburutegia	Irakurzaletasuna.
LH2	11/05/26	Udaletxea	Musika entzunaldia
LH2	11/05/27	Udaletxea	Agenda 21
LH2	11/06/3	E.I.T.B.	Komunikabideak
LH2	11/06/9-10	Hondarribia	Ziklo bukaerako agurra

Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / Bigarren Hezkuntza			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH3	Otsailak 15	Antzoki Zaharra	Zinea euskaraz
LH3-4	Martxoaren 21etik 25era	Liburutegia	Ilustrazaila tailerra
LH4	Martxoak 23	Zientzia museoa	Uraren mila aurpegi ezagutu
LH3	Apirilak 1	Haizearen Orrazia - Urgull	Haizearen gailan sakontzea
LH4	Maiatzak 9	Donostia	Ingelesko antzerkia
LH3-4	Maiatzak 26	Madalensoro	Xiba, jolasak ezagutu
LH4	Maiatzak 30, 31 eta ekainak 1	Baratze baserri eskola	Ikasturte bukaerako egonaldia
LH3	Ekainak 2 eta 3	Astiz	Ikasturte bukaerako egonaldia


Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / Bigarren Hezkuntza

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH5	Otsailak 22	Gernika	Euskal Herriko antzinako foruak ezagutu
LH5	Martxoak 21	Zinema euskaraz: NANNY 2. Donostia	Zenbait balore landu
LH5	Apirilak 7	Aditu batekin elikadura tailerra.Ikastola	Elikadura osasuntsua bultzatu
LH5	Ekainak 14	Pagoeta	Bertako ekosistema ezagutu
EKINTZAK			
LH5	Martxoak 16	Ikastolako laborategia Esperimentuak egin	Gelan idatzitako hipotesiak frogatu
LH5	Martxoak 25	Pintxoak dastatu. Ikastolako pasiloa	Pintxo osasuntsuak egin
LH5	Apirilak 14	JUUL bozketa + Liburu berrien erakusketa bisitatu	Irakurzaletasuna bultzatu

Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / Bigarren Hezkuntza

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH6	Martxoak 18	Bote luzeko Gipuzkoako txapelketa	Etnomotrizitatea lantzea
LH6	Apirilak 11	Jose Mari Iturralderekin elkarrizketa	Irakur eta idatz zaletasuna bultzatzea
LH6	Maiatzak 9	Urnietako ontzi sailkapen planta	Birziklapenak dakarkigun onuraren gauzatzea.
LH6	Maiatzak 18	Bertso jaialdia	Herri mailan bertsoan aritzea.
LH6	Ekainak 8-9-10	Arotzenea	Harremanak eta ingurugiroa ezagutzea

Bigarren Hezkuntza DBH1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH 1	Martxoak 30	Madalensorora	Herri kirolak praktikatzea
DBH 1-2	Apirilak 14	Ikastolan	XXIX. Lexoti saria ikustea
DBH 1-2	Maiatzak 6	Haurtzaron	XXXI. Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketan parte hartzea
DBH 1	Maiatzak 11-12	Ikastolan	Tabakoaren kontsumoari aurre hartzeko saioetan parte hartzea
DBH 1	Ekainak 15-16-17	Barria (Araba)	Ikasturte amaiera dela eta disfrutatzea eta gozatzea
DBH 1-2	Apirilak 14	Ikastolan	JUUL bozketa: irakurzaletasuna indartzea
DBH 2-4	Maiatza	Ikastolan	Drogomendekotasunaren prebentzio tailerrean parte hartzea
DBH 2, zientzi tailerrekoak	Maiatzak 2	Oiartzunen	Oiartzun ibaiaren azterketa
DBH 2	Ekainak 9	Ernioko kobazulora	Espeleologia praktikatzea
DBH 2	Ekainak 15-16-17	Acedora (Nafarroa)	Zikloari amaiera polita ematea
DBH 3	Apirilak 4	BTEK museora (Zamudio)	Teknologiako museoa bisitatzea
DBH 3	Maiatzak 16-30	Erreteriera	Arrauna praktikatzea
DBH 3	Maiatzak 13	Ikastolan	AESLEME taldekoekin hitzaldia
DBH 3	Ekainak 3	Ikastolan	"Kalean uso, etxean otso" programaren lanketa
DBH 3	Ekainak 15-16-17	Gorlizera (Bizkaia)	Ikasturte amaiera dela eta disfrutatzea eta gozatzea
DBH 4	Martxoak 11	Ikastolan	Orientazioa: Batxilergoen aurkezpena Amaia Lakarekin
DBH 4	Martxoak 11	Ikastolan	Amaia Lakarekin orientazio saioa
DBH 4	Apirilak 1	Oiartzora	Oiartzo batxilergo ikastola ezagutzea
DBH 4	Ekainak 13-14-15-16-17	Coma-rugara (Catalunyara)	Ikastolako ibilbideari amaiera polita ematea
DBH 2-3-4	Martxoan	Gelan	Garbiñe Merino sexologoarekin heziketa afektibo-sexuala
DBH 1-2-3-4	Maiatzak 18	Ikastolan	ESNE-BELTZA taldearen kontzertua (euskararen aldeko motibazioa)
DBH 1-2-3-4	Maiatzak 27	Oiartzungo udaletxean	Eskola Agenda 21 programaren barruan HERRI BATZARRA



Urteko sarituak

PILOTA

Manex Apaolaza Gipuzkoako binakako txapelketa, txapeldunordea.
Egoitz Etxabe Xanistebanetan, alebinetan, eskuzko txapeldun

MUSIKA

Patricia Zaldua Andoaingo Piano Lehiaketan 1. saria
Ane Cruz Andoaingo Piano lehiaketan 1. saria
Izaro Idarreta Andoaingo Piano lehiaketan 1. saria
Garazi Ezkerro Andoaingo Piano lehiaketan 1. saria

Andoaingo piano topaketetan

Alazne Kruz, urrea
Maddi Puy, urrea
Irati Zabala, zilarra.

SOINU ZAHARRA

Katerin Artola Telleria 1. saria Euskadiko Txapelketan
Udane Eskudero Euskadiko XVII. Neska-tena txapelketan jantzirik hoberenaren saria eta Beasaingo XX. Dantza txapelketako 1. saria

AURRESKUA

Ekain Susperregi Oiartzungo dantza txapelketan 4. postua
Aritz Olarte Gipuzkoako dantzari txiki txapelketan 1. saria, Beasaingo XX. Aurresku txapelketako irabazle eta XXV. Gipuzkoako Aurrekulari txapelketako irabazlea

ARRAUNA

Aitor Torres eta... Gipuzkoako batel ligan irabazleak
Peio Kazabon, Jon Cortes eta... Gipuzkoako batel ligan irabazleak
Garazi Lasarte: Gipuzkoako ligan irabazleak, Open Internacional de Banyolasen finalista

JUDO

Mikel Iparragirre Gipuzkoako txapelketa, 57 kg-tik beherakoak, brontzezko domina.
Eneko Intxauspe Gipuzkoako txapelketa, alebinetan, urrezko domina.
Maddi Puy Gipuzkoako txapelketa, 47 kg-tik beherakoak, brontzezko domina.
Gorka Aduriz Gipuzkoako, Espainiako eta Euskadiko Txapelketan 1. saria
Izaro Idarreta Euskadiko Txapelketan 1. saria

KENPO KAI

Ekaitz Benitez Euskal Herriko Txapelketan 1. saria, Gipuzkoako 1. saria, Nafarroako 1. saria eta Espainiako 1. eta 2. sariak

PILOTA

Unai Flaño Xanistebanetako txapeldunordea
Zigor Salaberria 2010eko Xanistebanetako binakako txapelduna
Andoni Ugalde Burladako binakako txapelketan txapelduna eta Donezteben finalista.
Beñat Trigo herriko txapelketan irabazlea
Iker Mujika Gipuzkoako txapelketan txapelduna
Josu Leonet Oiartzungo Zesta txapelketa

ATLETISMOA

Nerea Oiartzabal, Gipuzkoako Txapelketa-ko altuera jautsian 4.

KAPOEIRA

Lander Jimeno, gerriko marroia

BOTE LUZEA

Oihan Lopez, Uxue Oiarbide, Jokin Irastorza, Intza Errandonea, Ibai Telletxea, June Urre, Unai Flaño, Peru Ruiz de Azua, Maddi Soroa, Amaia Cortes eta Naroa Prieto.
Gipuzkoako eskolarteko Txapeldun ordeak.

JOCKEY IZOTZ GAINEAN

Jagoba Zapirain Espainiako txapelduna

IGERIKETA

Luken Jimenez San Esteban sarian lehenengoa, Kutxako lehiaketan hirugarrena, Oarsoaldeko lehiaketan lehenengoa eta Zarauzko lehiaketan, errelebotan, lehenengoa.
Aitor Sagastuy Euskadi Txapelketa 100 m. bizkar urrezko domina eta 200 m. bizkar urrezko domina
Oihan Manzisidor Euskal Herriko txapelketan 2. postua

LITERATURA

Mikel Puy, Eneritz Aduriz, Daniel Garcia, Araitx Sagarna, Beñat Azkarate, Jokin Irastorza, Imanol Ugalde, Oihan Lopez, Olatz Irigorri, Maialen Elorza, Ane Lizarraga, Karen Muñoz, Ainhoa Irigorri, Ane Dehesa, Uxue Agirre, Aintzane Toledo, Beñat Trigo, Izaro Toledo eta Mirari Agirrezabala.
Oiartzungo Udaleko 2010 Prosa eta Poesia lehiaketan sariduna
Aritz Olarte: Resurreccion Maria Azkue saria poesian

BERTSOLARITZA

June Ibaguen Lexoti txapelketako LH 6. mailako 1. saria
Maitin Kazabon Lexoti txapelketako DBH 1. mailako 1. saria
Jon Otegi Lexoti txapelketako DBH 2. mailako 1. saria

SMS LEHIAKETA

Jara Garzia, Amaia Ostolaiz eta Uxue Agirre finalistak

MARRAZKETA

Garazi Echeverria eta Enara Elizegi, Xanisteban 10eko kartel lehiaketan 1. oiartzuarraren saria

ARGAZKILARITZA

Markel Galdos Oiartzungo Argazkiez Blai Lehiaketan
Eider Tomé eta Ane Lizarraga Haurtzaro Ikastolako 2. argazki lehiaketako irabazleak
Izar Aizpuru Haurtzaro Ikastolako 2. argazki lehiaketako irabazlea

XAKEA

Oihan Lopez, Xanistebanetako txapeldunordea





Bertsolaritza

29. LEXOTI SARIA XABIER LETE GOGOAN



Iraitz, Beñat, Aitzol, Markel eta Jokin

29. Lexoti saria gure ikastolan. Badira urte batzuk, beraz, ikastolan bertsoaren graziak erakarrita, kantari hasi ginela. Tokitan daude hasierako Karlos Aizpurua, Aitor Arbelaiz, Aitor Etxebeste, Ixiar Elizondo, Juan Mari Lopez, Asier Bergaretxe, Iñaki Pikabea, Andutz Labandibar eta ahaztuta ez daukagun ondorengo zerrenda luzea. Batzuk Nafarroan bertsolari, besteak Bertsozale Elkartean lanean, zenbait plazaz plaza kantari, gai jartzaile, antolatzaile, irakasle... Hogeita bederatzita urte igaro dira, eta oraindik martxan dago orduko gurdi zaharra.

Aurten ere hortxe aritu ziren ikastolako oraingo bertsolari berriak kantari, apirilaren 14an. Azken urteetako edizioetan bezala, aurtengoan ere bi atal izan zituen jaialdiak. Bertsoaren bi bertsioak, bi aurpegiak ikusteko eta entzuteko aukera izan genuen areto nagusian. Bertso idatzien atala eta bat-batekoena.

Bertso paperetan, Lexoti sariko irabazleek beren bertsoak kantatu zituzten mikrofono aurrean. LHko 6. mailako irabazlea June Ibarguen izan zen. DBH 1eko



Iraitz, Jokin eta Beñat



txapelduna, berriz, Mattin Kazabon. Eta DBH 2ko garailea, Jon Otegi.

Aspaldiko notiziarik onena jaso duzu, izan zen June-ren gaia. Eta bertsoak, Errealeko Griezman jokalaria gaztearen inguruan idatzi zituen.

Mattin Kazabonek bi bertso idazteko gaia hau izan zuen: Bihar egun handia da. Hona txapeldunaren bigarren bertsoa: "Egun ona izateko motibo badago/ bihar izango baitut urte bat gehiago/ beti ttikia banintz nik askoz nahiago/ baina hori ezin dela ni seguru nago".

Jon Otegiren gaia hauxe zen: Bart arratseko ametsa oso polita izan da. Hona lehenengo bertsoa: "Ederra eta oso gozoa bart arratseko ametsa/ atzoko hura noizbait ahaztea ez da izango erreza./ Niri gaztelu hark eman zidan falta zitzaidan babesa/ ni nintzen printze urdina eta neska eder bat printzesa".

Saio berean, esan bezala, bat-bateko bertsoak entzuteko aukera ere izan genuen bertaratu ginenok. Ber-



LEXOTI SARIKO IRABAZLEAK:
June Ibarguen, Mattin Kazabon eta Jon Otegi

tsoaldian bederatzi bertsolari aritu ziren kantuan. Jon Otegi, Beñat Oiarbide, Aitzol Salaberria, Iraitz Mateo, Gotzon Retegi, Markel Galdos, Jokin Irastortza, Beñat Ibargaien eta Ibai Telleria.

Eta aurtengo ikastolako bertso saioan, nola ez, Xabier Leterentzat gorde genuen tarterik gozoena eta hunkigarriena. Oiarbide poeta eta kantari maitatuaren bertsoak kantatu genituen, Gizon arruntarenak.

Aurkezle eta gai jartzaile lanetan Karmele Mitxelena aritu zen, Haurtzaro Bertso Eskolako irakaslea. Beti bezain ongi, argi eta gozo aritu ere.

Haurtzaro ikastolako ikasleak hain gaztetan bertsotan aritzeko gauza izatea ez da kasualitate hutsa izango noski. Eskola orduetako lanaren eta bertso eskolaren ekimenaren ondorioa baizik. Bertsogintza era horretan lantzea ez da modu aldrebesena, ikasleen ahozko adierazpena indartzeko eta bizkortzeko. Datorren urtean, 30. Lexoti saria.

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA GURE IKASTOLAN

Maiatzaren 6an gure ikastolan jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko 31. Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa. Bertan elkartu ziren inguruko herrietako bertsolari gazteak arratsaldeko 3retatik aurrera.



Haurtzaroko taldea: Aitzol, Beñat, Jon eta Iraitz

Bertsoaren bi bertsioak landu zituzten aurtengo txapelketan izena eman zuten gazte eta gaztetxoek. 3etatik 4etara, Bertso Paperetan finalera heldu zirenek, gai baten inguruan idatzi behar izan zituzten bertsoak. LHko 3. mailatik hasi, eta 18 urte arterainoko ikasleak ziren lan horretan ordubetez aritu zirenak. Haurtzarori dagokionez, DBHko 50 bat ikasle izan ziren, eta 30 bat LHtik.

Arratsaldeko 4etatik aurrera, bat-bateko kanporaketari ekin zioten. Bat-bateko bertsolariak bi mailatan banatu ziren, adinaren arabera. 14 urte artekoak taldeka, eta 14tik 18rakoak banaka.



Epaimahaia

Ttikiei dagokienez, Haurtzaro ikastolako Bertso Eskolatik honako talde hau aritu zen kantari: Jon Otegi, Beñat Oiarbide, Aitzol Salaberria eta Iraitz Mateo.

Ondoren, handiak aritu ziren, bailarako bertso eskole-tako ordezkariak.

Estuasun eta larrialdi ederrak pasatu zituzten batzuek, izan ere, gaztetxo hauek lan horretan daukaten eskarmentu eskasarekin ez baitute jende aurrean lasai aritzeko motibo handiegirik. Horregatik, oholza gaineko ezinak eta urduritasunak ulergarriak ziren.



Karmele Mitxelena gai-jartzailea eta Mikel Mendizabal



Hernaniko taldea





Esne Beltza

musika taldeari

Duela egun batzuk, maiatzaren 18an, pribilegio handia izan genuen Esne Beltza gure ikastolara etortzea. DBH 1. zikloari eta 2. zikloari kontzertuak eman ondoren, taldeko musikariei galderak egiteko aukera izan genuen. Horri esker, taldeari buruz gauza berriak ikasi genituen.

Nahiz eta hasieran lotsatuak egon, musikaren eraginez, momentu atsegina bat pasa genuen eta Txinpart aldizkari honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu gure izenean, ikasleen izenean eta ikastolaren izenean.

ESKERRIK ASKO ESNE BELTZAKOEI!

DBH 3. Mailako Alaia Belaunzaran, Uxue Telletxea eta Ekhi Mitxelena



Oiartzotik zer berri

NATURA SAIOAK ARTIKUTZAN

Aurreko ikasturtean berrikuntzak egiteko itxita egon ondoren, Artikutzako aterpetxea berriro ireki dute eskola-taldeentzat. Hori horrela, 1. batxilergoko Biologia-Geologiako ikasle-irakasleok martxoaren 17 eta 18an han izan ginen natura-azterketa saio batzuk egiteko eta, bide batez, giro lasaian elkarrekin egoteko.

Donostiako Udalak antolatzen dituen ekintzen artean, basoetako eta erreketako bioaniztasuna neurtzeko ibilaldi gidatuen eskaintza dugu. Aurtengo Biologiako programa osatzeko interesgarria iruditzen zaigu modu horretako aktibitateetan parte hartzea eta Artikutzak, gainera, gure inguruko paraje zoragarri bat ezagutzeko aukera ematen digu.

18 lagunekoa taldetxoa osatu genuen eta autobus txiki batean han joan ginen laino itxi-itxiaren artean. Lehenengo eguneko eguraldia beldurrezko edo

misteriozko pelikula bat egiteko modukoa izan zen: euria, lainoa... elfoak edo hiltzaileak bakarrik falta zitzaizkigun! Paisaiaren berdea ez zen ezagutzen dugun berdea, beste intentsitate eta distira batekoa zen. Ikusgarria! Euria eta guzti, lanean serio aritu ginen. Goizean mendian ibili ginen (blai egin ginen) eta arratsaldean laborategian.

Iluntzean aterpetxean afaria prestatu, afaldu eta solasean egon ondoren, batzuek lo egin genuen eta beste batzuek ez. Esan beharra dago lo egin ez zutenak errespetoz portatu zirela, eta ez zigutela "serenatarik" eman.

Bigarren egunean, batzuk besteak baino deskantsatuago, baina denok umore onez berriro ere lanari ekin genion. Eguraldia (oraingo honetan bai) portatu zitzaigun. Urtegi inguruko buelta egin genuen beste zenbait azterketa eginaz eta eguerdirako aterpetxera bueltatu ginen bazkaria prestatu, bazkaldu eta gauzak biltzera.

Eskerrak eman beharrean gaude aktibitate hauek zuzentzen dituzten gidariei. Bai Eva (ikastolako ikasle ohia den Eva Aiestaran) eta bai Alaitz gurekin zoragarri egon ziren eta pazientzia eta arduraz gain, Artikutzari buruz gauza asko erakutsi ziguten. Millesker.



Mugimendu autonomoa

Haurra jaiotzatik subjektu ekintzailea edota aktiboa da, ez bakarrik kanpoko estimuluetara erantzuten duena. Bere mugimendua ez du soilik desplazatzeko erabiltzen, baizik eta esperimentatzeko, ikasteko, komunikatzeko, deskubritzeko, ulertzeko, etab. Oinarrian, IZATEKO eta PENTSATZEKO.



Haurrak motibazioa berezkoa du, eta pixkanaka lortuko duen heldutasunarekin batera bereganatuko ditu beharrezko konpetentziak, esate baterako, arrisku eta limiteen aurrean neurriak hartzea, saiakerak egitea, zuhurtziaz jokatzeta... Baina prozesu hau honela gerta dadin beharrezkoa da haurrari bere kabuz jokatzeko uztea, egoera desberdin horiek guztiak berak bere baitan deskubri ditzan.

Horretarako, behar beharrezkoa da haurrak prozesua horizontaletik, lurretik, abiatzea. Lurrak edo bizkar hezurra espazio zabal eta firmearekin kontaktuan egoteak ziurtasuna emango dio, eta lehenengo pausu bezala buruaren kontrola emango da. Hau ezinbestekoa izango zaio ondorengo aurrerapen guztiak lortzeko.

Abiapuntu honetatik hasita eta haurrari behar duen denbora eta espazio egokiak eskaintzen badizkiogu, postura desberdinen lorpena eta mugimenduaren garapena **BEREZKOAK IZANGO DIRA**.

Beharrezkoa izango da haurra fisikoki seguru eta orekan sentitzea postura edo mugimendu berriak lortzeko. Oreka-desoreka eta segurtasun-integritate sentazioak oso pertsonalak dira, eta ezin dira inondik inora fortzatu. Adibidez, nekez ibiltzen den haur bat, oraindik bere gorputzaren oreka mantendu ezinik dabilena, hormaren kontra jartzen du helduak eta bera metro bateko distantziara jarritz, haurrari bereganatu hurbiltzeko esaten dio.

Mugimenduak eta postura aldaketak **PLAZERREZ EGITEA** izango da haurrak aurrera egin nahi izateko motorra.

Oreka fisikoaren segurtasun sententziazioetik etorriko da oreka psikikoa. Mugimendu guztien oinarrian lan fisikoaz gain **LANKETA MENTAL** bat ere badago. Lanketa mentalaz hitz egiten dugunean haurrak bere buruari jartzen dizkion zailtasunak eta haiei ematen dizkien irtenbideak ari gara.

Lagundu nahian egin ditzakegun interbentzioek berezko prozesu naturala moztu dezakete. Hau da, bere kabuz lortu ez dituen postura eta mugimenduak aurreratzeak ez dio mesederik egiten. Adibidez, hanketan behar besteko indarrak izan gabe haurra zutik jartzeak, mantentzen ez dela ere eserita jartzeak, oinezko posturak probokatzeak...

Horregatik, haurrekin harremana duen guztia animatu nahi dugu, bakoitzari bere denbora eskaintzera eta konparazioak ekidinez, **HAURREN GAITASUNETAN KONFIANTZA** izatera.



MIKROSKOPIO BINOKULAR BERRIA

LHko guraso batek opari ederra ekarri digu AZTI-Tecnaliatik. Berehala jarri dira ikasleak hari bi begiz begira! Mila esker.

Eta bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu ikasturtean zehar modu batera edo bestera lagundu diguten guraso guztiei.

HAURTZARO IKASTOLAKO

Mendi Taldea

2010/2011 irteerak

INFORMATZEN



Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera igo behar dugu.
Ez nekeak, ezta bide txarrak...

Haurtzaro mendi taldeak aurten ere oparitu dizkigu makina bat ibilaldi. Familia batzuk elkartu eta gure bide bazter miresgarriak ezagutu ditugu. Horrela poliki-poliki gure Euskal Herriko mendi tontorrak zanpatzen ari gara eta horrek poztasuna dakarkigu.

Hona bada aurtengo ikasturtean egindako irteerak:



Urriak 24 ANTIGUA-KIZKITZA-MANDUBIA



Azaroak 14 AIA-PAGOETA



Abenduak 12 NEGU JAIA: ELORRIETAKO KASKOA



Otsailak 20 ATXURIA



Martxoak 12 SOMPORT



Apirilak 10 TXINDOKI



UDA HELDU DELA!!!!!!

EGUZKITAN BERO BERO
IZERDITAN EGUNERO
UF, UF, HONDARTZARA NOA GERO
UF, UF, HONDARTZARA NOA GERO

HH1





haur Hezkuntza 3

SOINUEKIN GOZATUZ

ORAINGO HONETAN ZENBAIT
MUSIKA TRESNA EZAGUTU ETA
FAMILIETAN SAILKATU DITUGU,
BAITA ORKESTRA ASKI POLITA
ANTOLATU ERE.

HH3

1. IORAR OAIN EA
OOO! AZUEN
2. OKIDAKAN
6. IUNE AVOUSZ
1. UL I EIKADAA
3. EGURALDIEDRA IBAN
GENUEN
4. TMINETI8
5. IRZV OAK ARAPU
EIUN HH2

1. LISTORRETARA JOAN GINEN ETA OSO ONGI
PASATU GENUEN
2. BOKADILAK JAN GENITVEN
ETA AUTOBUSEZ ITEULI GINEN IKASTOLARA
3. EGURALDI EDERRA IBAN GENUEN
4. NATURAZ GOZATU GENUEN
5. KILKIR ZULOAK HARRAPATU GENITVEN HH2



Haurtzaro ikastola - 2011ko ekaina





LH1

NATURAREN SEKRETUAK



Hirugarren hiruhileko hone-
tako 7. unitatea "Naturaren sekre-
tuak" dugunez eta sekretu horiek aur-
kitu nahian, zenbait parketara jo dugu. Hala
nola Ibargaingo parkera, Mendibilgo Txarara eta
Kristinaenea parkera. Bertan ikusi eta ikasitako guztia
aldizkari batean irudikatu dugu.

Ibargaingo parkean eta Txaran arratsalde pasa eginak
gara eta zuhaitzak, hostoak, landaredia eta bizidun-bizi-
gabe alderaketak egin ditugu.

Landutakoarekin amaitzeko, Donostiako Kristinaenea
parkea hautatu dugu. Bertan, eguraldia lagun, itsas bizi-
dunei buruzko antzerki bat egiteko aukera izan dugu eta
baita bisita gidatu batean parte hartzekoa ere. Oso gustu-
ra aritu gara bertako natura behatzen, usaintzen, ukitzen,
entzuten eta oro har, ezagutzen. Beraz, gogotik dastatu
dugu naturan murgildutako esperientzia. Aniztasuna izan
dugu hizpide: Txinako zuhaitza batetik, Pouma zoraga-
rriak bestetik... Animalia eta landare ezberdinen parkea
da bisitatutakoa eta etxetik oso hurbil gainera! Gu, auto-
busez hurbildu gara bertara eta topoz itzuli Oiartzunera...
aberasgarria zinez!

Gaia amaitu dugula dakigun arren, ziur gaude naturaz
gozatzen segituko dugula! Noski, zuekin batera!





LH2

Kaixo denoi!!!

Komunikabideen gaia landu dugula jakitun al zarete?

Ba batzuk entzungo zenuten egin dugun irratsaioa Oiartzun irratian, ezta? Eta ez baduzue aukerarik izan, jakin oso saio bikainak galdu dituzuela. Egia esan, oso ondo pasa genuen eta berriro joan behar badugu prest gaude. Eta ondoren EITB ezagutzera joan ginen. Bertan ez genuen saio bat egiteko aukerarik izan, baina bai ikusi genuela nola prestatzen duten. A ze lan pila!



Arnasa hartu beharrean geundela eta mendiko irteera bat ere egin dugu. Ikasi dugu zein diren bizidunak, zein ornodunak, zein ugaztunak eta noski eraikuntza ederrak ere ikusi ditugu. Ah! Non jakin nahi duzue? Ba gure Oiartzun maitean. Hemen oraindik baditugu ikusi eta ikasteko gauza mor-doxka. Eta bestela begira, begira...



LH3

Ikasturte honetan, LH3. mailakoak bertsolaritza lantzen aritu gara. Lehenagotik ere bertso asko entzun genituen, eta kantatzeko afizio gaitza genuen. Hori bai, besteenak, noski. Baina oraingoan guk asmatu ditugu bertsoak! Eta, asmatzea zailagoa izan den arren, primeran pasa dugu!

Horretarako, lehenengo bertso zaharrak aztertu ditugu, hango neurriak, silaba kopuruak, oinak, errimak, puntuak, koplak, zortziko txikiak... A zer nolako saltsak!

Gutako batzuk, gainera, Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketan parte hartzera animatu gara. Ikusi ze taldetxoa...



Bertsoak idazteko gaia NATURA MARRAZTEN ARI ZARA izan zen, eta bi koplak edo zortziko txiki bat idazteko aukera izan genuen. Begira, begira, ze koplak dotoreak!

*Gure andereñoak
eman digu lana,
udaberria da nik
margotu dudana.*

*Kolore asko ditu
bai udaberriak,
eta alaitzen ditu
gure baserriak.*



GORA BERTSOLARITZA !



LH4

Aurten 4. mailan lehen aldiz txanela gaztelaniako materialarekin lanean aritu gara. Denetarik egin dugu, eskualdeko leku, pertsonaia... desberdinak eza-gutu ditugu, kanpotik etorritako lagunei elkarriketa egin diegu, mimo eta pantomima egiten ibili gara, ipuinak ilustratu ditugu, urarekin jolastu gara eta aiton-amonon haurtzarora hurbildu gara.

Hainbeste lan egin ondoren, oporretan pentsatzeko parada ere izan dugu. Hona hemen mailakide batzuek egindako planak:



LH5

GU ERE SUKALDARI

Txanelako 4. unitatean elikagaiei buruz asko ikasteaz gain, oso proiektu erakargarria burutu dugu.

Elikagai mota ezberdinak, bakoitzak dituen mantenugaiak, zein funtzio betetzen duten, eta zein janaritan aurkitzen diren aztertu dugu.

Gure digestio aparatuek nola funtzionatzen duen eta zer lan betetzen duen ikasi dugu.

Gaia landu ondoren bi ondorio nagusitara iritsi gara:

Dieta orekatua egiteko, gure beharretara egokituz, denetik jan behar dugu, eta elikadura desegoki batek gaixotasun larriak ekar ditzake.

Auto-estimua izatea oso garrantzitsua da, eta horretarako gure gorputza den bezala onartu behar dugu, eta elikadura osasuntsuak eta ariketa fisikoak horretan lagunduko digu.

Gaiari bukaera emateko guk asmatutako errezetak jarraituz egindako pintxoan dastatzea egin genuen.

Zein goxoak!!





LH6

“...SAIATZE HORRETAN EZIN GELDITU”

Txanelako 5. unitateko proiektua materiari buruzko lan monografikoa egitea izan da, txosten zientifikoa.

Txostenean azaltzen den informazioa bi iturritatik jaso dugu:

- Liburuko testuetatik (eskemak eta laburpenak)
- Zuzeneko esperientziatik (esperientzia-fitxak)

Unitatean jorratzen diren eduki garrantzitsuenak eta proposatzen diren esperimentuak kontuan hartuta esperimentu-fitxak eta laburpenak edo eskemak egiteko txantiloiak bete ditugu, eta txostena osatu dugu.

Unitate honetan, garrantzi berezia izan dute esperimentuek, esperientzien hipotesiek, prozedurek eta ondorioek.

Hemen duzue txosten zientifikoa egin dugun esperimentu baten fitxa, adibide modura.

LH 6. maila




3. esperimentua: AIREAK BA AL DU BOLUMENIK?

DATA: 11/03/30

TALDEKIDEAK: Goiuri, Jon, Intza, June eta Paul

HELBURUA: Gure hipotesia frogatzea.

MATERIALA: Bi puxika eta balantza



AZALDUTAKO HIPOTESIAK:

Aireak ba al du masarik?

Bai, airea materia da, eta materiak masa du.

PROZEDURA (PAUSOZ PAUSO)

- Lehenengo, balantza mahaiaren gainean jarri.
- Bigarren, puxika bat puztu, eta balantzaren alde batean kokatu.
- Gero, beste puxika balantzaren beste aldean kokatu.
- Azkenik, konprobatu zeinek duen pisu gehien, eta gehien pisatzen duenak masa gehiago du.



BILDUTAKO DATUAK - Ondorioak

Esperimentua egin ondoren (lehen idatzi dugun bezala egin genuen pausoz pauso), ikusi genuen aireak masa bazuela, hau da, aireak materia du.




Honetaz jabetu gara

DBH 4. mailako ikasleok, beste lan askoren artean, ikerketa lanak egin ditugu. Ikerketa gaia guk aukeratu dugu, eta hainbat bitarteko erabiliz, ondorio batzuk ere atera ditugu. Egia ote dira ondorio hauek guztiak?

Hona hemen zuek ere jakitun izan zaitezten.

EUSKAL KULTURA TRANSMITITZEN AL DUGU?



Euskal kulturaren aldeko festak antolatzen dira sarritan. Buruari bueltaka aritu naiz eta, ondorioz, kezka bat sortu zait: zergatik antolatzen dira? Agian ohitura hauek behar bezala transmititzen ez direlako? Hori kontuan hartuta, euskal kulturaren transmisioari buruzko lana egitea otu zait. Lana egin ondoren, konklusio batzuk atera ditut.


Hainbat galderaz osatutako inkestak pasa ditut gelan. Galdera hauek grafikoetan irudikatu ditut, eta gero, haiei buruz konklusio txiki bat atera dut. Guztia laburbilduz, ikus dezakegu nola transmititu den euskal kultura urteetan zehar. Esan beharra dago gurasoek, kulturaren transmisioan, eragin handia dutela seme-alabengan. Bestalde, ikus dezakegu ikasleengan geroz eta handiagoa dela bertsolaritzaren aldeko apustua. Baina kantagintzari dagokionez, hobetu beharra dugu. Euskal literaturari erreparatzen badiogu, grafikoetan ikusten dugu Oiartzungo euskaldunok euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu irakurtzen dugula.



Edonola ere, guztiok ahalegin bat egiten baldin badugu, gure kultura sendotu eta horrekin batera transmitituko dugu.

Anima zaitez!

ZIORTZA SALABERRIA



KANPOKO ITXURARI EMATEN DIOGUN GARRANTZIA



Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, laugarren mailako bi ikasle gara. Gure ikastolako azken hiru hilabeteko honetan, Euskara arloan, ikerketa lana egitea tokatu zaigu

eta guk gustuko dugun gai batean oinarritu gara lan hau egiteko, modan. Urteetan ibili izan gara gurasoek jantzi nahi gintuzten eran, eta beti izan dugu gogoia erosketak egitera joan, eta guri gustatzen zaigun zerbait erosteko, gurasoen "gustuko dut" gabe. Horregatik, lan honen helburua moda munduan zenbat urterekin murgiltzen hasten garen jakitea zen, eta lortu dugu nahi genuena.

Inkesta hau 63 ikasleren eta 7 irakasleren artean banatu dugu, eta gure bi emaitzak lagin honen arabera atera ditugu. Lehen konklusioa da mutilek uste baino garrantzi gehiago ematen dietela beren kanpoko itxurari, bai ileari, baita janzkerari ere. Eta bigarren, berriz, heltzen garen heinean garrantzi gutxiago ematen diogula gure itxurari, hamabost-hamasei urte bitarteko jendea detaileetan oinarritzen




da, beren moda propioa sortzeko edo aurrera eramateko eta gaztexeagoek, berriz, adin horretako betiko modari jarraitzen diote.

ALAITZ AGILAR eta UXUE BARRENETXEA



Ikastolaren eguna 2011












EUSKARAREN ERABILERA ETA GARRANTZIA IKERTZEN



Euskarak DBH4. mailan daukan garrantzia betidanik interesatu izan zaidan gaia da, eta horregatik, ikerketa egitea erabaki nuen, DBH4. maila guztian. Helburua argia zen: jakitea ea euskarak behar bezalako garrantzia duen gure mailan, eta bide batez, Eskuttunen lanaz galdetzea.

Ikerketa lan honekin atera ditudan ondorioak hainbat azpigaitan banatu ditut:

- **Eskuttun:** Emaizak begiratuaz, orokorrean lan ona egiten duela esan da, nahiz eta hainbat proposamen interesgarri ere eman dituzten.
- **Euskara eta familia:** Familiak eta ohiturak eragin zuzena duela ondorioztatu dut, txikitatik ohiturak hartzen baititugu, gerora ere eragingo digutenak.
- **Lehen hitza:** Hemen ezin aipatu gabe utzi herrietan eta hirietan jendeak ohiturak aldatu egiten dituela, izan ere, herrietan ia denek lehen hitza euskaraz egiten dute. Hirietan, aldiz, gehiago jotzen da gaztelaniara lehen hitza egiteko orduan.
- **Euskara eta lagunak:** Datuak ikusiaz, nabarmena da lagun artean gehienek euskaraz egiten dutela, eta hau beren inguruaren arabera dela, nahiz eta jendeak batekin edo bestearekin hitz egitean hizkuntza aldatu, gogotsu ikusi da euskara aurrera ateratzeko.
- **Euskararen erabilerari ematen zaion garrantzia:** Konturatzeko modukoa da euskarari garrantzi handia ematen zaiola, eta ia gehienek euskara lehen hizkuntzat hartzen dute.
- **Hika:** Emaizta hauekin, ikusi dudana izan da jendearen gogo: gehienek hika ikasteko gogo bizia azaldu dute, oso gutxi baitira dakitenak. Eta honetarako euskarako klase gehiago honi zuzentzeko eskatu dute.



Dena laburbilduz, nahiko emaitza positiboak ikusi ditut gure mailan eta euskararen aldeko gogo eta irrika.

IZAR AIZPURU

DBH

hartzak BETE LAN



DBH-N ABORTUAZ DUGUN IRITZIA JAKIN NAHIAN



DBH 4. mailako azken hiruhilabetekoan ikerketa lan bat egin dugu. Guk abortuaz egitea pentsatu genuen, oso gai eztabaidatsua bihurtu baita azken urte hauetan, legediaren aldaketa dela eta. Gainera, ez da oso

gai ezaguna gazteen artean eta lan honekin beren eza-gutza-maila neurtzea eta gai honi buruz gehiago jakin nahi izatea izan dira gure helburu nagusiak.

Gure ikaskideek eta irakasleek inkesta bat bete zuten, ondoren guk konklusio batzuk ateratzeko. Galdera sorta eder bati erantzun behar zieten, abortuaren eza-gutza-mailari, gaiarekiko jarrerari eta kostuari lotuak zeuden item guztiak. Galdera itxiak, aukeratzekoak, eta irekiak zituen inkestak, bertan beren iritzia zabaltzeko aukera zuten galderek.

Hortaz, lan honekin guztiarekin ondorio esanguratsu batzuk atera genituen. Oso harrigarriak benetan. Konklusio argiena da adinak aurrera egin ahala abortuarekiko dugun eza-gutza-maila gehiagotzen doala, hau da, DBH 3. mailako ikasleek 4. mailakoek baino gutxiago dakite gai honi buruz.



Bestalde, gazteenek ez dituzte oso ideia argiak, kostuari buruz adibidez, baina abortuaren alde ala aurka dau den arazorik gabe azaltzen dute, zaharrenek ez bezala. Irakasleek ideia berdinak eta argiak dituzte, guztiek uste dute abortuak ikaskideengan arazo larriak ekar ditzakeela. Halere, ikastolan gai honi buruz eta prebentzioari buruz informazio gehiago eman beharko litzatekeela proposatzen dute. Gehitzeko, esan beharra dugu ikasle guztiak ados daudela gai honetaz gutxien entzuten duten lekua ikastola dela, beraz, irakasleak zuzen dabil-tza alor horretan.

Azkenik, eskerrak eman nahi genizkieke DBH 3-4. mailako ikasleei eta 2. zikloko irakasleei, haien laguntzarik gabe konklusio hauek ateratzea ezinezkoa izango litzai-guke eta.

JARA GARCIA eta ANE GARCIA



NOLAKOA DA GAZTEON AISIALDIA?



Gurasoek gure aisialdiaz duten iritzi ezkorra dela eta, gazteek aisialdian egiten dutena ikertzea erabaki nuen. Honetarako, ikerketa egin ondoren gurasoek esandakoa benetan betetzen den jakin nahi nuen eta ea kaltegarria den ikusi.

Ikerketa egin ondoren hainbat konklusio atera nituen. Batetik, nabarmenena, lagunekin ateratzeko maiztasuna da. Lagunartean eroso sentitzen gara eta zainduago. Hori dela eta, denbora ugari egoten gara lagunekin. Bestetik, hizkuntza eta kirola aipatu behar dira. Oartzungo gazteria oso euskalduna eta osasuntsua dator. Horretaz harro egon gaitezke.

Baina dena ez da hain onuragarria. Ikerketa honek aparatu teknologikoak eta batez ere ordenagailua larregi erabiltzen dugula ohartarazi dit. Kirola egiteak osasuna dakar, baina ordenagailuen menpe egotea ez da onuragarria. Isolatuta egoten gara aparatu horien aurrean eta jendea arazok izaten ari da. Horrek ez du esan nahi ez ditugula erabili behar, baina erabiltzen jakin behar dugu, gehiegizko erabilera kaltegarria izan daiteke eta.

Irakurketaz ere kezkatu egin behar dugu. Oso gutxiri gustatzen zaio irakurtzea eta askok ez dute egiten. Honek ondorio txarrak ekar ditzake, izan ere gaur egungo gizartean ezinbestekoa da ongi irakurtzea.



Azken konklusioa, merkatal zentroetara egiten diren txangoei buruzkoa da. Gizarte honek berak kontsumista bilakatzen gaitu. Beherapenak, gabonak... direla eta txangoak egiten ditugu, eta hori geroz eta

indar gehiago hartzen ari da gazteen artean.

Niri harrigarria iruditzen zait kontsumitzea helburu duten txangoak egitea, eta eten egin behar direla iruditzen zait, azkenean behar ez ditugun gauzak erosten ditugulako mendiaz edota hondartzaz gozatu beharrean. Hori guztia kontuan harturik, nire ustez garaiak, orokorrean, kalterako aldatu dira.

ANDONI UGALDE

KIROLAREN ETA OSASUNAREN ERAGINA NERABEZAROAN




Gure adineko nerabeak aztertzen aritu gara, beren osasuna eta kirol ohiturei buruzko ikerketa lan bat egiteko asmoz. Horretarako, hainbat faktore hartu ditugu kontuan, batik bat kirola, elikadura eta drogak.

Gai hau lantzeko ideia orain dela gutxi bururatu zitzaigun, gure adineko hainbat kirolari drogak kontsumitzen eta zerrikeriak jaten ikusi genituenean. Kezka handia sorrarazi zigun horrek.

Lan hau egiteko 12 galderaz osatutako inkesta bat pasa genien gure mailakideei.

Inkestak aztertu ondoren ondorio hauek atera ditugu:

- Kirola egiten den egunetan gehienek bi orduz egiten dute, baina egun gutxitan egiten dute kirola eta hori oso gutxi dela iruditu zaigu. Aldiz, esan daiteke kirola egiten dutenean gogotsu egiten dutela.
- Ez genuen espero jendea hain ondo elikatzen zenik, egunero jaten baitute barazki edo frutaren bat, eta horren gutxi joaten zirenik janari azkarra ematen zuten lekuetara ere ez.
- Gainera, kirola egiten eta ondo elikatzen garen arren, drogen kontsumoa nabariagoa da handitzen goazen heinean.



Azkenik, eskerrak eman behar dizkiegu DBH4ko ikasle guztiei eman diguten laguntzagatik, gure inkesta zuzentasunez, zehaztasunez eta zuhurtziaz betetzeagatik.

ANDER ARANBURU eta BEÑAT TRIGO



Zenbat arazo, hainbat konponbide

DBH4

Alaitasunaren bila

Gaur egun jende asko bizi da estresaturik, triste edo denekin haserre, alaitasuna bilatuz. Baina, non aurki daiteke? Zer da benetan alaitasuna?



Iker Etxebarria
DBH 4



Alaitasuna, gure gorputzak gertaera jakin batzuetan duen erreakzionatzeko modua da. Gure aukera bat da, gure sentimenduak, ez gertatzen zaiguna.

Peter Cojenek, ikertzaile britainiar batek, alaitasunaren formula deitu duena asmatu du. Mila pertsonari egindako galdeketa batean oinarriturik sortu du formula hau: $P+(5 \times E9+(3 \times N))$. P zure jarrera da, E ea ados zauden zure egoerarekin eta N, berriz, zure erlazioak besteekin. Galdeketa horretan, gainera, frogatu zuen denok ditugula pozik sentiarazten gaituzten faktore komun batzuk. Hala ere, bi sexuen artean desberdintasunak daude erantzunetan. Hamar mutiletatik lau pozik daude bere ekipoak irabaztean, eta neskak, berriz, hondartza eguzkitsu batean egotean.

Tristura alaitasunaren faltari deitzen zaio. Hau ere, sentipen bat da. Zientifikoki melatonina izeneko hormona gehiegi edukitzearen ondorioa da. Badago jendea neguan triste sentitzen dena. Frogatua dago neguan, argi faltarekin, melatonina sortzen dela. Garunaren kontrol zentroak begietatik sartzen den argiaren menpe daude. Dopamina bezala ezagutzen den substantzia baten maila, handitu egiten da argiak begien atzeko aldearekin talka egitean. Dopaminak pertsonen kontzentrazio eta bizitasuna handitzen du. Horregatik, argi gutxi dagoenean energia falta eta logalea sentitzen dugu. Hau da gauean lo egiteko gogoaren kausetako bat. Horrez gain, eta oraindik bere kausak zehatzak ez izan arren, tristura zerbait garrantzitsua galtzean, zerbait txarra gertatzean, bakarrik sentitzean... sentitzen dugu. La Lagunan egindako ikerketa baten arabera, nerabeek eta helduek umeei baino gehiago sentitzen dute tristu-

ra, nerabeak izanik intentsitate handienarekin sentitzen dutenak. Helduengan tristura familia-arazoei dakarte, nerabeengan gurasoei edo lagunekin arazoei eta umeengan heriotzarekin du zerikusia.



Konponbide zientifikoa eguzkia hartzea da, melatonina maila jaisteko. Elikadura zaintzea ere konponbide egoia izan daiteke. Arraina eta intxaurrak jateak pozik sentitzen laguntzen du dituzten bitamina eta osagaiengatik.

Psikologoek ematen dioten konponbidea da zure burua aldatzeko gai izatea, mundua zurekin aldatuko dela diote. Oraingoa bizi behar da, lehenaldian eta iraganean pentsatu gabe. Zure burua onartu behar duzu, autoestima mantenduz. Amets bat lortzea espero ez duzun helburu bat da, baina lortzen saiatu behar dena. Beti mantendu irribarre, pozik ez egon arren garunak aurpegiko keinuak interpretatzen ditu eta hauetara egokitzen saiatzen da. Beraz, gure sentimenduak aurpegiaren keinuen bidez alda ditzakegu. Gorrotoa barruan izanik eta barkatzen ez badakizu, ezinezkoa da Pete Chojenen formula % 100 lortzea. Besteak ematen jakin behar da pozik bizitzeko. Mantendu zure lagunak bere izateko era aldatu nahi izan gabe eta lagundu iezaezu. Eduki beti konfiantza zuregan eta besteengan.



Ondorioa da gure bizitzaren momentu bakoitzari etekina atera behar zaiola, motzegia dela, Pete Chojenek dioen bezala. Izan gaitzen denak pertsona alaiak! Pertsona jakintsua bere buruaz barre egiten ere ikasi duena dela diote. Hortaz, egin barre hau irakurri eta gero, bizi irribarre eginez, eta bizitzak irribarre egingo dizu.

Aia de la Peña
DBH 4Sare sozialekin *Kontuz!*

Webgune sozialak, interneteko sareak... gero eta gehiago erabiltzen dira, batez ere gazteen artean. Interneten onurak hainbat badira ere, tresnak dituen arriskuak eta ekarri ditzakeen ondorioak ugariak dira. Arrisku mota hauetan adituak diren "Foro Generaciones Interactivas" izeneko taldeak, webgune sozialei buruz ikerketa bat egin du. Ikerketaren arabera: webgune sozialak maiz erabiltzen dituzten 10 gaztetatik 4k arazo sozialak izan dituzte tresna desegoki erabiltzeagatik. Adibidez, sexu abusua webgune ezbeharretan nabigatzeagatik, sareetako ezezagunek datu pertsonalak emateko mehatxua...

Arazoaren kausa nagusietakoa da gaiaren inguruan gazteek duten ezagutza falta. Hau da, gazteak ez daukela informaturik Interneten erabilera okerrak ekar ditzakeen ondorioei buruz. Interneten ondorio kaltegarrien beste eragile bat arriskuaren ezagutza falta eta arriskuari ematen zaion garrantzi eza da. Esate baterako, datu pertsonalak agerian uztearen arriskuaren ezagutza falta; lagunekin argazki eta grabazio desegokiak partekatzearen arriskua; publikoan, edonork ikusteko moduan zintzilikatzen diren mezu pribatuak ekartzen dituzten arazoei ematen zaien garrantzi eza... Horrez gain, hirugarren faktorea, adoleszentziak gazteengan dakarren jarrera desegokia da. Honek sareen erabilera okerra bultzatzen dezake, gazteek ez baitute kontzienteki jokatzeko.

Arazoa bertan dugu, etxe bakoitzeko ordenagailuen erabilera okerrean. Hori jakinik, arazoari buelta emateko eta tresna egoki erabiltzeko hainbat konponbide zehaztuko ditugu.



Datu pertsonalen eta intimitatearen babesa ezinbestekoa da Interneten ibiltzeko. Horretarako, alde batetik Internet erabiltzen duten bai guraso bai 10-18 urte bitarteko gazteak intimitatea agerian uztearen ondorioei eta tresna hau egoki erabiltzearen garrantziari buruz informatzea litzateke irtenbide bat. Adibidez, ikastetxeetan gai hauetan aditua den norbaitekin kontaktuan jarri eta ikasleei gaiaren inguruan datuak ematea egokia litzateke.

Bestetik, gurasoak ere gaiaren inguruan informatu, arriskua bertan dagoela ikusarazi eta aholku baliagarriak eman.

Aholku bat gurasoek ordenagailuaren erabilerarako hainbat arau ezartzea da. Hala nola, ordenagailua bistako leku batean kokatzea (egongelan, sukaldeko txoko batean...) ez baita sekretuak gordetzeko tresna, eta gehienetan idazten eta zintzilikatzen dugun guztia publikoa baita. Hortaz, ordenagailua bistan egotea onuragarria dela uste dut, gazteak batez ere kontzienteki izateko zer idatzi eta zer ez, zein argazki igo eta zein ez, jakinik edozein momentutan gurasoek begiradaren bat eman diezaieketela.

Laburbilduz, gaia kontuan hartu beharrekoa da, batzuetan ez baikara konturatzen arazoa begi bistan dugunik. Baita ere, gurasoek Interneten erabilera ez okertzeko eta ondorio kaltegarriarik gerta ez dadin, seme-alabei arazoez informatzea egokia litzateke.

Euskaraz bizi 3. kanpaina

Ikastolan, bai gelan eta bai gelatik kanpo: EUSKARAZ BIZI! Horixe izan da gure helburua ikasturte osoan zehar, eta horretarako bi kanpaina antolatu ditugu azken hilabeteotan.


Irakurzaletasuna indartu



Nazioarteko Liburu egunaren inguruan, apirilaren 4tik 15era, IRAKURZALETASUNA INDARTU egitasmoa izan genuen ikastolan. Helburua haur eta gazteengan irakurzaletasuna suspertzea eta sustatzea zen eta, bide batez, euskal literatura bultzatzea. Gune nagusia erakusketa izan arren, ekintza ugari antolatu genituen: J. K. Igerabide eta J. M. Iturralde idazleekin solasaldiak, JUUL kanpainako hauteskundeak, bertsolaritza tarteak, ipuin kontaketak...

Hamabostaldiaren barruan KORRIKA 17 ospatzeko aukera ere izan genuen. Oiartzundik apirilaren 12tik 13rako goizaldean igaro zen eta Haurtzaro ikastolak erosi zuen kilometroan, 1248. kilometroan, Eskuttuneko ikasleek eraman zuten lekukoa. Horretaz gain, ikastolako HHko eta LHko ikasleek KORRIKA TXIKIAN hartu zuten parte eta DBHkoek ere izan zuten beren korrika, KORRIKA GAZTEA, hain zuzen.





Jostatu euskaraz, euskararekin jostatu

Maiatzaren 23an hasi eta ekainaren 3a bitarte, Euskaraz Biziko 3. kanpaina antolatu genuen ikastolan: jostatu euskaraz, euskararekin jostatu!

Egun horietan, ikasleak soka-tira, zaku-lasterketa, toka eta bestelako herri kiroleetan aritu ziren. Norgehiagokak alde batera utzi eta, ongi pasatzeaz gain, euskaraz animatzea izan zen helburua. Gisa honetako esaldiak ibili ziren bolo-bolo ikasleen ahotan: eutsi!, eman gogor!, segi horrela!...

Kanpaina honi ekainaren 20ko jaialdiak eman zion amaiera. Bertan ikasleak eta irakasleak aritu ziren jostatzen eta, noski, Argitxoren bisita ere izan genuen. Oporrei hasiera emateko modu bikaina izan zen, ezbairik gabe.

Ikasturte osoan zehar, Haurtzaro ikastolan euskara sendo eta bizirik dagoela erakutsi dute ikasle nahiz irakasleek. Nolanahi ere, beti dago zer landua eta horretan jardungo dugu, beti ere, gure leinari jarraituz: EUSKARAZ BIZI!





Eskuttun:

Gogoko tokian, aldaparik ez

Betiko legez, Eskuttuneko kideak lan eta lan aritu gara ikasturte osoan zehar eta hemen gaude horren guztiaren berri emateko.

Euskaraz Bizi egitasmoaren barruko kanpainak antolatzen laguntzea izan dugu egiteko nagusia.

- Horrela, lehenengo kanpainan idaztearekin loturik zeuden ekintzak bultzatu genituen. Eta Euskararen Egunean jai giro bikaina izan genuen ikastolako pilotalekuan; izan ere, euskal karaokean izugarri gozatu genuen ikastolako txikienekin dantzan eta kantuan!
- Bigarren kanpainan, ikasleengan irakurzaletasuna bermatu zedin, Juul kanpaina eta erakusketa prestatzen aritu ginen ikastolako areto nagusian.
- Hirugarren kanpainan, berriz, ahozketasuna lantzeko jolasak antolatzen aritu ginen jolasgaraietan. Helburu nagusia, ongi pasatzearekin batera, euskaraz animatzea zen eta baita lortu ere: entzutekoak ziren ikasleen abesti eta oihiak.

Guk, Eskuttuneko kideok, bereziki DBHko futbol- eta pilota-partidak antolatu genituen. Oso arrakastatsuak izan ziren, ikasleen arteko lehia bizia izan baitzen, eta ikasle eta irakasleen artekoa, zer esanik ez.

Bestalde, herri mailako euskararen aldeko ekintzetan ere parte hartu dugu: Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoko bileretan eta, nola ez, Korrikan. Izan ere, Haurtzaro Ikastolak Korrika Nagusian erositako kilometroan lekukoa eramanez genuen ilusio osoz, eta halaber, Korrika Txikian nahiz Gaztean laguntzen aritu ginen.

Baina lana serio egiteaz gain, elkar ezagutu eta ongi pasatzeko aukera izan dugu solasaldi, askari eta bazkarietan. Esaerak dioen bezala, gogoko tokian aldaparik ez.

Aurten DBH 4. mailako Eskuttuneko kideok euskararen alde lanean jarraituko dugun arren, azken urtea dugu ikastolan; eta ibilbidearen amaieran, datorren urteko kideak animatu nahi ditugu euskararen alde lanean jarrai dezaten.



Nik uste jende askok uandik ez takila zer den gazte forua. Iya hitz gutxitan eta modu errex batin esplikatzte uten.

Gazte forua udalak DBH 1etik DBH 4 (12-16/17 urte) arteko gaztiakin duen proyektua da.

Kuadrillategi



AURTENGUA RE TI-TA PASA DA...

Kaixo gaztiak!

Gu DBH1eko Haurtzaro eta Elizaldeko ikasleak gara. Ikasturtea amaitzera doa, eta horrekin batera Kuadrillategi. Penaz agurtuko gara, izan ere harreman berri asko eta ekintza ezberdinak egin ditugu. Esate baterako, errekarra joan, bidegorrira, Arraguako jaiak, serigrafia, Txuri Urdinera, txapelketak... oso ondo pasa dugu eta hurrengo urteetan egongo direnek ere berdin pasatzea espero dugu!

Ez izan zalantzarik, animatu Kuadrillategira eta gozatu!

Gora Kuadrillategi!
Hurrengora arte!!

Bertan asteazkenero bi eskoletako adin tarte hortako nahi duen gaztiak juntatzen dia, ordezkariyak deitzen diyegu.

Billera hauek asteazkenetan 2:30tan itten ttugu, ta bakoitza al dunin sartu ta atetzen da, (lenengo ikasketak bait dia, partikularrak, examiñak, etxeke lanak...) Asteazkenero bi eskoletako ordezkariyak juntatzen ga, teoriar 3 hillabeteka herri eskolan ta ikastola tartekatuz. Azken aldi yontan ikastolako sarreraren juntatzen ga ta geo DBHko ordenadore gelan eoten ga.

Billera hotan gaztiak hillabetin behin beste herriko gazte guzityantzat ekintza bat antolatu behar dute. Hillabetin behin eta urtian 15.

Ekintza hauek oso desberdiñak izaten dia: sukaldaritza tallerra, Santomasetako jostallu salmenta, solidaritate kanpañak, talo rekorra, arropa-diseñatze tallerra, Xanixtebanetako futbito txapelketa... gaztiak erabakitzen dute ze ekintza in. Gazte hauen lana, ekintza hauek antolatzia da, hortako Nekane Martiarenaren laguntza izaten dute. Gazte bakoitzak bere nortasun, gaitasun, indar, abilezi... baitan lan itten du eta falta zaizkiyon o izkutun ttun sortzalle sena hoik atetzen saiatzen ga. Denan lana da itten ttugun kartelak jartzia, beste gaztiak mezua pasatzia, ta ze antolatu dugun adieraztia, jendik ze in nahi dun galdetzia...

Ezetzta dirudi biño ekintzak antolatzia in handiya du: jendia in gustatuko zayon ekintza pentsatu eta galdetu, behin erabakiya donin, in ber din deyak in (autobusak dila, jende adituai billatu...) baimenak eskatu (udalian, eskoletan...) ekintza dena erabat ondo lotu, kartelak in ta jarri, mezuak pasa...

Ulertu al da?

Bueno, ta bukatzeko aurten DBH 4ian doztenak agurtu, bereziki Ugaitz Susperregik azkeneko urte hauetan in dun lana eskertu. Ta ongi etorriya eman datorren kurtsun DBH 1ea sartuko din gaztiak.

Ah! Aztu gabe, asteazkenetan lanaz aparte itten ttugu beste gauza batzuk biño hau gaztiak ta ne arteko sekretua da. Gauza da EARKI PASATZEN DUGULA.





ZUTIK EZKERRETIK ESKUINERA: Pili Lizaso, Argiñe Oiarbide, Pilar Altuna, Edurne Iradi, Donibane Azkarate, Iñaki Lertxundi, Patxi Lizarraga eta Jaione Ugaldebere.
MAKURTUTA EZKERRETIK ESKUINERA: Aritz Gonzalez, Ioritz Aizpuru, Xabi Solano, Kontxi Begiristain, Joxin Azkue eta Madalen Usabiaga.

1. Zein zarete ziklo honetako irakasleak?

Iñaki (Gorputz Heziketa eta Herritartasuna), Jaione (Gaztelania eta Kultura klasikoa), Patxi (Matematika), Kontxi (Euskara), Argiñe (Ingelesa), Madalen (Teknologia eta Fisika-Kimika), Edurne (Gizarte Zientziak, Arteak eta Plastikak), Maider eta Ioritz (Natur) Pilar (Gizarte Zientziak), Donibane (Gorputz Heziketa), Ihintza (Frantsesa), Pili (Errefortzua), Xabi (Musika), Joxin (Informatika) eta Aritz (Informatika eta Bidegintza).

2. Zein dira ziklo honetako berezitasunak?

Alde batetik, etapa amaiera da eta, aldi berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarena. Gure ikasleek Hautzaro Ikastolarekin amaitzen dute. Bestalde, autonomia eta heldutasun maila asko garatzen da garai honetan. Eta gerora begira, orientazio akademikoari dagokionez, ziklo garrantzitsua da hau.

3. Ziklo hau DBH etapako azkeneko zikloa izanik aldaketa handia al dakarkio lehen ziklotik datorren ikasleari?

Aldaketaren bat egon liteke, baina esan liteke urtez urte progresiboa dela. Ordutegian alderik ez dago, irakasgai kopuruan ere handirik ez. Irakasle taldean dago aldaketa, batzuek aurretik ezagunak badituzte ere.

4. DBHko ikasleek duten adina kontuan hartuta, ekintza osagarri berezirik egiten al da?

Ekintza batzuk etapako orokorrak direnez, ziklo honetan ere lantzen ditugu. Hala nola, osasun hezi-

keta: drogamenpekotasunaren prebentzioa, HIESA-ren prebentzioa, bide heziketa, sexu heziketa, Eskutun... Bestalde, ikastolako proiektu orokorretan ere parte hartzen dute ikasleek; besteak beste, Olentzero, San Tomas, Santa Ageda, inauteriak...

Baditugu baita ere gure zikloari soilik dagozkionak: Britainiako ikasleekin trukea (bi urtez behin), arraun eta piragua ekintzak, euskara indartzeko motibazio saioak, Eskola Agenda 21, ikasketa amaierako ibilaldia (Coma-Ruga), eta ibilaldi hau egin ahal izateko antolatzen diren hainbat ekintza. Ez dugu ahaztu behar haiek antolatzeak konpromiso maila handia eskatzen duela.

Horrez gain, ikastolako hainbat bileratan parte hartzeko aukera dute ziklo honetako ikasleek: Hezkuntza Batzordean, Hizkuntza Batzordean...

Beraz, ikasleek eguneroko gelako lanez gain, badiutze ekintza ugari beren formazioa sendotzeko.

5. Ikasleek ondorengo ikasketak hautatu behar dituzte. Nola bizitzen dute garai hori?

Hirugarren maila amaieran, hautazko 3 arlo aukeratu behar dituzte ikasleek. Hori horrela, jada bide bat aukeratzen hasiak dira laugarren mailara iristerako. Laugarren mailan zehar, etorkizunari begira (Heziketa Zikloa, Batxilergoa) erabakia hartu behar dute. Eta oso ohikoa da ikasleak ez jakitea etorkizun labur horretan zer egingo duen. Gehienek badakite Batxilergoa edo Heziketa Zikloa egingo dutela, baina zein modalitate egin aukeratu behar dute, eta batzuek urduritasunez bizitzen dute prozesu hau. Aurrematrikulak egiten dituztenean lasaitasun ederra hartzen dute.



DBH 2. zikloko irakasleei elkarrizketa

6. Nola orientatzen dituzue?

Kurtso hasieran beren burua nola ikusten duten jakiteko galdekizuna erantzuten dute. Kurtsoan zehar, autoezagupena lantzen da urrats batzuen bitartez: interes pertsonalak, gaitasunak, nortasuna, errendimendua...

Hori guztia egin ondoren, informazio fasea dator. Horretarako kanpoko adituak ekartzen ditugu: (Jesús Cabrero, Amaia Laka) eta baita Batxilergoko zentro batera, Oiartzora, bisita ere antolatzen dugu. Honen guztiaren ondoren dator erabakia hartzea.

7. Etapa honetan irakasgai bat ingelesez lantzen dute ikasleek. Erraz egiten al dute aurrera?

Gaur egungo gizarteak ingelesa bere baitan txertatua dauka. Guk ere ikastolan modu bereko trataera ematen diogu ingelesari. Adin honetan guztiz normala egiten zaie ikasleei, txiki-txikitik landu duten hizkuntza batean, ingelesean, arlo bat lantzea.

8. Nola bizitzen duzue hainbeste urte ikastolan egondako ikasleak agurtu behar izatea?

Ikasleek poza sentitzen dute etapa berri bat hasi behar baitute. Baina baita pena ere, hainbeste urtean bizitutakoari agur esan behar diote eta. Irakasleok ere, antzeko sentipenak izaten ditugu.

Hala ere, beren bisitak jasotzen ditugu eta pozik jaso ere. Asko dira hurrengo ikasturteetan bisitan inguratzen zaizkigunak Santomasetan, inauterietan, Ikastolaren egunean, beren azterketak amaitzen dituztenean...

Gainera, gure ikasle ohi batzuk bueltan etorri zaizkigu, baina oraingoan langile modura...

9. Zer esango zeniekete adin tarte horretako guraso eta ikasleei?

Ikasleei esango genieke bizitzako etapa garrantzitsuenetako batean daudenez, bizitzen ari diren hori ahal den modu hoberenean eta aprobetxagarrienean bizitzeko. Eta gurasoei, berriz, guraso eskoletan parte hartzea animatzeko esango genieke. Izan ere, bertan, beren seme-alabekin bizitzen dituzten galderak eta kezak partekatzeko eta lantzeko aukera paregabea baitute.

10. Beste zerbait aipatzeko...

Oporrak gainean ditugunez, ezin utzi esan gabe opor on-onak pasatzeko, atsedena hartzeko, eta kurtso edota etapa berriari gogoz ekiteko. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu ikasleei, gurasoei eta gurekin lanean aritu diren laguntzaile guztiei.

Gurasoei elkarrizketa

Urteak ziztu bizian pasatzen direla errepikatzen dugu maiz. Ikastolan, horren adibide garbia ikasle eta gurasoen joan-etorria dugu: batzuk etorri, besteak joan; esperientzia berria hasi, esperientziarekin atera. Bi esperientzien ahotsak entzun nahi izan ditugu oraingo honetan eta, horregatik, gurasoak bihurtu ditugu protagonista.

Ikaslearen ikastolako etorrera eta aurreneko urtea nola bizitu duten kontatuko digute ondorengo guraso hauek.

IMANOL ESNAOLA



Urte aberatsa izan da. Jaio zenetik inguru hurbila eza-gutzen ibili bada, aurten eremu "sozialera" beste pauso bat egin du, lagunak, taldean jolastea, kooperazioa... gauza berri asko, emozio berriak ere bai, poza, zapuzdura...

Esperientzia berriei dagokionez, gustura ikusi dugu, bere lagunen kontuak ekartzen ditu etxera, gelan landutako liburuxkak ere harro erakusten dizkigu, jolasak ikasi ditu eta gurekin jolastu nahi izaten du, kantu eta dantzak batez ere... konpartitzeko gogo handia ikusi diogu, eta horrek asko poztu gaitu. Izan ere, besotako umea izatetik bere kideekin taldean bizitzera salto handia egon arren, modu guztiz positiboan bizi izan du. Grina handia sumatu diogu ezagutzeko eta ongi pasatzeko, eta horrek asko lagundu dio bere inguruan gertatzen zena ulertzen eta ongi asimilatzen.

Bestalde, ikastolatik kanpoko irteerak ere ugari izan dira. Bizkar-zorroa prestatzea bera ere eginkizun garrantzitsua izan da beretzat. Merkatura, baserrira, liburutegira... hamaika konturekin itzuli da eta esperientzia berrietarako aldarte onean izaten lagundu diote. Tirriki-tarraka bazterrak ezagutzen gogoz ibili da eta galtzetako zuloetan ederki igartzen zaio bizi izandakoa.

Kasketak ere hamaika izan dira, jarritako mugak ez baitira beti bere "neurritza" etortzen, baina hori ere menderatzea lortu dugu oraingoz. Gure alaba etxeko bigarrena da eta HH-n hasi berria izan arren, anaiaren arrastoa ezagutzen du, eta horrek geltoki asko aurreratu dizkio.



JON MINER



Gure semeak handitzen ari dira, eta iaz ikastolan matrikulatu genituen. Aukeraketa ez zen inondik inora erraza izan, baina zirt edo zart egin behar eta joan zen irailean ikastolan hasteko prest geunden. Gure semeak, bikiak, jaio zirenetik elkarrekin egonak, gela desberdinetan banatzea erabaki genuen.

Egokitzapen luzea eta astun samarra pasa izanagatik poliki-poliki gauzak bere onera etorri ziren. Andereñoa onartzeko, eremura egokitu eta eguneroko errutinan jartzeko lauzpabost aste pasa ziren. Zorionez, udazkena, negua eta udaberria leun etorri eta joan diren eran, gure haurrak, bakoitza bere erritmoan, norberaren dohainak sendo garatzen ari dira.

Orain ikasturtea bukatzeaz dagoela, egitekoak erabat barneratuta dituzte. Gainera, gure semeek aurten izugarri hobetu eta bere buruan konfiantza handiagoa hartu dutela konturatzen gara.

Goizero ohetik jaikitze eta gosaltzeko izaten dira komeriak, baina zein zoriontsu iristen diren ikastolara! Poz-pozik korridoretik korrika batean joaten dira Eskarnerengana!

Beraz, pozik gaude hartu genuen erabakiarekin, bakoitza bere izaera landu eta garatu ez ezik, gure hezkuntza eta kultura barneratzen ari delako eremu ezin hobe batean; beraiekin aldi berean, gu geu ere, noski, ikasten ari garelako.

NEIL STEPHENS



Gure familiarentzat Loreak ikastolan egin duen lehen urtea esperientzia oso positiboa izan da.

Lorea haur-eskolan sei hilabetez geroztik egon izanak ikastolara egin beharreko egokitzapena arazo handirik gabe egitea ahalbideratu du. Behar bada hirugarren haurra izateak eta aurrekoen esperientziak asko erraztu du ikastolako hasiera.

Beste seme-alabekin batera asko gozatu dugu giro positibo eta familiarrean hazten eta ikasten ikusten.

Beste hauek, haurrak zirela ekarri zituzten ikastolara eta orain heldutasunerako bidean dauden gazteak dira. Guraso hauen esperientziaren berri ere eman nahi dizuegu.

ANJEL MARI ARBELAITZ ETA PEPI MATEO



Guraso bezala ikastolan izan dugun esperientzia oso positiboa izan da. Gure seme-alabei etxean irakatsi nahi izan dizkiegun baloreak balio dutela ikusarazi die ikastolak eta gure heziketaren jarraipen ona izan da bera. Ikastola bukatu ondoren ikusi dugu hezkuntza maila altuarekin irteten direla bertatik eta ez hori bakarrik, pertsona mailan ere ume eskuzabalak eta errespetuz jokatzeko dutenak dira.

Horregatik bertan gelditzen diren kideei aukera ona egin dutela esango genieke, ikastolen funtzionamenduak eskuzabaltasun eta errespetu hori erakusten baitie. Ikastolak funtzionatzeko bai ikasle, langile eta gurasok parte hartu behar dugu eta hori kontuan hartzeko ere esango genieke.

IMANOL BARRENETXEA



Guk hasieratik oso garbi geneukan, arrazoi askorengatik, gure alabentzat hezkuntza aukera hoberena ikastolaren eredua izango zela.

Bi alaba ditugu, nahiko haziak dagoeneko, 19 eta 15 urtekoak. Zaharrena, Zuzenbi-dea ikasten ari da, 2. maila; eta bigarrena,

aurten, ikastolan, DBH bukatu eta batxilergo egitera Oiartzora joateko asmoa daukana.

Guraso bezala, oso harro gaude gure alabek jaso duten heziketaz, bai pertsona mailan, eta baita alderdi akademikoan ere. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiogu urte hauetan eremu batean edo bestean hezitzaile izan diren edo garen komunitate osoari.

Nik, pertsonalki, gure aurreko askok egin zuten moduan, ordu asko eskaini dizkiot ikastolaren proiektuari; eta urte hauetako lanean oztupoak ez dira falta izan, lankide arteko eztabaida puntualak ere bai, nahiko ohikoak direnak mugimendu bat bizia eta dinamikoa denean, baina beti aurrera egiteko borondate onenarekin. Eta hori kontuan izanda, ez naiz damutzen egindako ekarpenez.

Zerbaitetan denbora inbertitzea merezi duen zerbait baldin bada, gure seme-alaben proiektu hezitzailean egitea bezalakorik ez dagoela esango genieke.

Badakigu gaurko gizartean kontsumismo eta indibidualismo handia dagoela, "Kaxa tonta," telebista, internet... eta horrelako tramankuluen aurrean ordu pila pasatzen ditugula, askotan batere edukirik gabeko programak ikusten, alfer-alferrik, denbora galtzen. Eta gutxienez horien erdiak bakarrik ikastolari eskainiko bagenizkio, segur aski, gure seme-alaben heziketaz gain, norbanakoari emango lizkioken onurak hobeak izango lirartekeela uste dugu, besteak beste, herrian integratzeko orduan, eta baita harremanetarako sareak zabaltzeko orduan ere.

Aukera hau aprobetxatuz, beste kontu bat ere aipatu nahiko nuke. Askotan gure herrian ikastetxe ereduez hitz egiten da, publiko-pribatu dikotomi antzuan eztabaidak izaten ditugu. Horren aurrean azpimarratuko nahiko nuke gure ikastolak publikoa izateko beste edozein ikastetxeren bokazioa eta ezaugarriak badituela, aspalditik demostratuak dituenak. Batzuen akatsa administrazioaren titulartasunean bakarrik oinarritzea da, eta ez kudea-

keta ereduaren edo herritik sortua eta herriari ematen dion zerbitzuagatik.

Ez da ahaztu behar, Haurtzaro Euskal Herriko beste lurraldeetako ikastolekin batera elkarlanean ari dela, euskara eta euskal kulturaren oinarritutako hezkuntza sistema propio baten alde lanean. Oso bestelako kontua da egun daukagun administrazio zatitzaileek ez gaituztela horrela kontsideratzen, eta ondorioz, besteak baino finantziario maila murriztagoak eta oztupo gehiago ditugula, besterik ez.

Horregatik, guk askotan erabiltzen dugun kontzeptua egia galanta da; hau da, Hezkuntza sailak daukan "subkontratarik" merkeena Ikastola Elkarteko ikastolak direla; kostu gutxiena dakarkiona alegia, gutxiena ordaindu eta emaitza akademiko onenak ematen dituenak, kalitatezko hezkuntza sistema bermatzen duena. Eta hori dena, maila handi batean, gurasoen bizkar. Horretarako ez dago eskubiderik!

Azkenik esan nahi nuke merezi duela gure proiektua elikatzen jarraitzea; guraso, irakasle, langile, bazkide-laguntzaile... Azken finean komunitate osoak bultzatzea behar dugu, biharko Euskal Herriko hezkuntza sistema propio bat izan dezagun.

Eskerrik asko denagatik.

KARMEN ESTEBARANZ



Pozik nago, eta baita ere eskertu nahi dizuet Haurtzaroko guraso izan naizen urte hauetako esperientziak azaldu eta besteekin partekatzeko aukera emateagatik.

Niretzat gai garrantzitsuena HEZKUNTZA KOMUNITATEA osatzen dugunon TALDEKO LANAREN GARRANTZIA da (irakasleak, ikasleak, familiak).

Badakit "horretan ari garela" eta "bakoitzak berak ahal duena egiten dugula"... baina "gaia erreparatzera" animatu nahi zaituztet, eta horrela ahal dugun zintzoen hausnartu: nahiz banaka, nahiz taldeka, zergatik, nola eta noraino gauzatzen dugun gure praktikan.

Jesus Cabrero orientatzaileak gure ikastolara etorritakoan, gurasoen, irakasleen eta ikasleen aurrean DBH 4. mailako



ikasleei formakuntzaren garrantzi handia azpimarratu zien; zein garrantzitsuak diren, biharko mundua baitira!

Orduan, ondorengo hausnarketa egin nuen: guganako menpekotasuna duten gaztetxo hauei, adin txikiko hauei, entzuten al diegu? Dituzten benetako beharrei erantzun ahal izateko nahiko arretaz tratatzen al ditugu?

Biharko egunean gaurko ikasleak izango dira garaiko helduak, baina gaur egun gu gara, gurasoak eta irakasleak, beren gaitasunak garatzeko bidean beharrezkoa duten guztia eskaini behar diegunak; eta horretarako gaitasun horiek adieraztea eta kontuan hartzea nahitaezkoa da.

Nire ustez, aipatu egungo heziketa sistemak ikasleak benetan entzuteko (haien hitza jaso, haiek behatu...) guneak eta garaiak behar ditu, eta ez programazioak handituz (dagoeneko nahiko edo gehiegi beteak), progresiboki berrituz baizik.

Zerbait kontatu nahi dizuet:

lazko udan, ikasle batek sorospen ikastaroa egin zuen. Esfortzu eta dedikazio handiak behar izan zituen, gehienbat oporretako egunak horretarako erabiltzea. Baina bizitzarako edukiak —bizia salbatzen lagundu dezaketenak, gainera— bereganatu zituela ikusirik zera galdetu zuen: Eta hori zergatik ez da eskolan ikasten? Eta nik zuei galdetzen dizuet: “Zergatik ez?” Eta zergatik bai Hezkuntza sailak markatzen dituen programa teorikoak, bizitzatik eta beren etapatik urruti daudenak? Zergatik ez ditugu eskola programetako edukiak zerbait berrikusten, eta poliki-poliki bizitzarako trebetasunak lortzeko jarduerak sartzen joan? Horiek izaten dira txiki-txikitatik ikasleek espresuki eskatzen dituztenak, esperientziatik gertuago daudenak, eta motibazio handiagoa sortzen dutenak.

Lehengo ikasle bizi eta ausartari ikastolan planteia zezan proposatu nionean, bere erantzuna zera izan zen: Ba, ez lidakete kasurik egingo!

Helduok, gaztetxoek erreferenteak garenok, ere horrela pentsatzen dugu: zertarako molestatu ez bada ezertarako izango!, edo dagoena dago!

Beno, dagoena dago! Zerbait aldatzea proposatzen ez dugun heinean, eta hori bakoitzaren eta denen ardura da.

Espiritu kritikoa, berritzailea eta eraikitzailea galtzen badugu; ez badiegu gure buruei entzuten, eta “bizitza berriak” ez baditugu entzuten, edo haiek dakarkigutena jasotzen ez badugu, MUNDUARENTZAT ETA GUZTIENTZAT ABERASTASUN ETA ZORIONTASUN ITURRIA GALTZEN ARI GARA. Eta, aldiz, gaitasun hori guztia besteei ematen diegu, eta helburu ekonomikoak soilik dituztenen esku uzten dugu (eta horien nondik norakoen eskarmentua badugu).

Poztuko nintzateke lerro hauek hausnarketara lagunduko balizute, eta aktiboki parte hartzea elkarrekin, ez lan astun gisara, aukera modura, baizik. Bakoitza bere alderditik eta bere posibilitateetatik, baina guztiak elkarrekin eta komuni-

katuta: bakoitzak laguntza txikia eskainiz, baina taldea osatu eta aberastu egiten duela jakinda.

Berritzea lan astuna, deserosoa eta zaila da, baina EBO-LUZIOAREN MOTORRA DA ETA HORI ERE IRAKATSI EDO IKASI EGITEN DA, egunoroko jardueran.

Garai batean utopia zirudien zerbait egingarri bihurtutako esperientzia duen ikastolako kideei ari natzaizue. Nire esperientzia positiboaz hizketan ari naiz, nire semearen integrazioaz, ikastola-ikasle-familiaren arteko lan koordinatuari buruz (ikaslea ardatz moduan hartuta eta erritmoak errespetatuz).

Konfiantza eskaini nahi duen ikastolaz ari naiz, eta horretarako berme onena parte hartzeko moduak dira. Eta ERABILTZEAZ ari naiz, eta hori PRIBILEGIOA da!

Bada esperantzaz betetako jakintsu baten esaldia: EZINEZKOAN SINETSIZ EZINEZKOA EGINGARRI BIHURTZEN DA! Animo, eta bideaz gozatu! Beti arte!

MARIAJE OTAEGI



Euskaraz hazi eta hezi nahi genituen bi alabak eta denetik izan badugu ere, nire / gure balorazioa oso ona da.

Urte politak izan dira guretzat: Karrikako haurtzaindegian hasi, hiru urterekin ikastolara salto egin, lagun eta irakasle berriak ezagutu, etab. Oso oroimen politak ditut. Lehen Hezkuntzan eta DBHn ere esperientzia aberatsak izan ditugu. Ikasturteak oso azkar pasa zaizkit, hori bai!

Asko estimatzen dut irakasleek, langileek, gurasoek... egindako ahalegina eta pentsatzen dut bakoitzak bere postuan jarraitu beharko duela aurrerantzean ere, ikastolak merezi du eta.

Etorriko diren guraso gazteei Haurtzaro handitu eta garai berrietara egokitzen laguntzeko eskatuko nieke. Seme-alabak motibatu, bultzatu, parte hartu...



Haurtzaro dantza taldea

ARIN-ARIN ETA FANDANGO IKASTAROAK



1982-1983 ikasturte hasiera zen, hainbat orduz kanpoko eskola-ekintza martxan jarri ziren garai hartan, eta haien arteko beste bat izan zen arin-arin eta fandango dantzak ikastekoa. Gurasoen parte hartzea oso berezia zen garai hartan eta ikastolen mugimendua ere bai.

Arin-arin eta fandangoa betidanik izan dira gustuko Oiartzun inguruan eta laster hasi zen guraso talde bat gure ideiarekin bat egin, eta martxan jartzeko ideia Maria Angeles eta Martxelena izan bazen ere, berehalaxe osatu zen taldea.

Hasiera hartan bi egunetan izaten ziren entseguak eta bereziaren larunbat goizetakoa izaten zen. Goizean Hernanira joaten ginen Juanito Santxiz irakaslearen bila, bera izaten genuen irakasle lanetan aritzen zena. Hainbat eta hainbat txapela irabazitako dantzari fina eta gaur egun epai mahaletan ikusten dugun Karlos Santxizen anaia. Oiartzuna ekarri, bere saioa egin eta bueltan Hernanira eramaten genuen.

Dantzan ikasi eta taldetxo bat berehala osatu zen. Irtenaldiak egin ere hasi ginen garai hartan: Hernanira, Urnietara, Aranora, Ereñozura, Gros auzoko jaietara... Urkabeko erromerian eta Oiartzunen beste jaietan ere dantzatzen hasi ginen.

Esan behar da hirurogei bat ikasle izan zirela eta 85-86 ikasturterako 80 ikasle inguru geratu zirela taldean.

Ondoren, gure alabak beste ekintza batzuetan hasi ziren, eta Mikel Bergaretxe eta Maite Gezalaren ardurapean utzi genuen ardura.

MARTXEL ANSA-M^a ANGELES IRASTORZA

Martxelek eta Maria Angelesek adierazi bezala, dantzaren ardura utzi zuten eta Mikel Bergaretxe Haurtzaro Ikastolako batzordean

zegoenez, berarekin harremanetan jarri eta dantzaren ardura bere eskuetan utzi zuten.

Mikel Bergaretxe eta Maite Gezalak Lourdes Esnaola lezoar dantzariarekin harremana zuten eta berarengana jo zuten dantzako monitore bila, ordurako Juanitok berak utzi egin baitzuen. Helburu nagusia euskal dantzak fandango eta arin-arinean soilik mugatu beharrean, taldeko dantza eskaintzea zen. Lourdesek Marixabel Oroz dantzariarekin harremanetan jarri zituen eta Marixabel izan zen Haurtzaro dantza taldeko irakasle lanetan hasi zena.

Dantza taldeari forma eman nahian guraso talde bat hutsetik hasi zen; materiala, arropak... osatzen eta, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, haur guztiak denak batera astean bitan bildu beharrean, adinka eta taldeka biltzen zituzten; horrela, entseguak kalitate hobea izan zezaten.

Ikasturteak aurrera joan ahala, taldeak ere gehitzen hasi ziren eta taldea handitzen. Hala ere, aipatu behar da mutilen kasuan beti izan dela parte hartze eskasagoa.

78, 79, 80 eta 81eko hamarkadan jaiotakoak izan ziren lehenak EDBk (Euskal Dantzarien Biltzarrak) antolatzen zituen interresko-larretan parte hartzen. Interreskolarrak taldekako dantza txapelketak ziren.

Haurtzaro dantza taldearen helburu nagusia euskal dantza tradizionala ikasi eta ikasitakoa kalera ateratzea zen. Hori helburu izanik, interreskolarrekin aukera hori ematen zuten, eta bertan parte hartzea erabaki zen.

Urtero hartzen zuen parte Haurtzaro dantza taldeak, eta urte batean 1. saria lortu zuen. Txapelketa hauetan beti Lartaun txistulari taldea izan zen bide lagun.

Dantza taldeak lehen inbertsio handiena egin zuen jantzi eta materialean, eta horretarako Oiartzungo Udalak laguntza ekonomikoa eman zuen. Urte hauetan, guraso, ikastola eta udalaren arteko elkarlana oso garrantzitsua izan zen.





Dantza taldearen parte hartzearekin jarraituz, beste herri batzuetan egiten ziren saioak ikusi eta Oiartzunen zer sor zitekeen aztertzeko hasi ziren. Lan hauetan aritu ziren Kontxi Arruabarrena eta Maite Gezala. Horrela hasi zen parte hartzen sanjuanetan, inauterietan, xanistebanetan...

Geroztik, nagusiki, hiru arlo bereizten dira: ikastola maila, herri maila eta txapelketa maila.

Jarraian, urte hauetan guztietan egindako saio, irteera eta beste-lakoen zerrenda azaltzen da:

- Bikotekako fandango eta arin-arin txapelketak.
- Interreskolarrak (Ordizia, Elgoibar, Donostia, Zaldibia...).
- Auzoetako jaiak (azken urteetan festetan jendea elkartzea zaila zen, eta galdu egin zen zenbait auzotan, bestetan mantendu zen arren. Hala ere, iaztik hona berriz ere berreskuratzen hasi da bide hau).
- Ezkontzak: diru iturri garrantzitsua (azken urte hauetan "moda" kontuagatik edo, oso gutxi izaten dira eskaerak)
- Murixka dantza taldearekin (Lezo) izandako elkarlana alde guztietatik oso garrantzitsua izan da: material eta jantzi trukaketak, dantza saioak, irteerak eta dantzari trukaketak...
- Oiartzun-Karaez



- 1992. urteko kilometroak Oiartzunen.
- Murixka-Hautzaro emanaldia.
- Sanjuanak.
- Xanistebanak.
- Iñude eta artzaiak: Ibargain flauta taldeak antolatzen du eta gonbidatu gaituzte parte hartzeko.
- Inauteriak.
- Herri musikaren txokoarekin saioa.
- Loriartzun.
- Dantzari txiki egunak: Beasain, Lazkao, Donostia, Lezo, Errenteria, Trintxerpe, Pasaia...
- Hautzaro ikastolaren egunaren bueltan, 2 urtez behin ikasturte amaierako emanaldia.

Aurretik aipatu bezala, taldea handitzen joan da, eta Marixabel Oroz hasi bazen ere Juanito Santxizen ondoren saioak ematen, dantza taldeko eta Murixka dantza taldeko zenbait monitore ere izan dira Hautzaro dantza taldeko monitore lanetan aritu direnak.

Gaur egun 13 talde ditugu neska-mutilez osatuak, eta bakarkako txapelketan aritzen diren neska-mutilak ere bai. Talde eta bakarkako irakasle lanetan, 8 irakasle ari dira eta taldeak zenbait saio egiten ditu. Aurretik aipatutakoez gain, aipatu behar da baita ere udan Hautzaro dantza taldeko zenbait dantzarik aukera paregabea izan dugula Murixka dantza taldearekin batera festibaletara joateko eta munduan barrena bidaia egiteko; Kolonbia, Estonia, Mexiko horien artean. Bidaia ahaztezinak guztiontzat.

Iaz, Hautzaro dantza taldeko 15-18 urte bitarteko dantzari neska-mutilak Cantonigros-eko festibalera joateko aukera paregabea izan zuten, eta bertan saria eskuratu zuten. Esperientzia bikaina inondik inora.

Martxel Ansa, Maria Angeles Irastorza, Mikel Bergaretxe, Maite Gezala, Kontxi Arruabarrena, Marixabel Oroz, Alaitz Bergaretxe.



#ITZ MISTERIOTSUA

Asmatu emaitza eta esaldia

$95 \times 15 =$

$25 \times 7 =$

$82 : 2 =$

$4 \times 83 =$

$5 \times 81 =$

$13 \times 2 =$

$5 \times 14 =$

$18 : 2 =$

$62 \times 2 =$

$65 \times 195 =$

$12675 = S$

$130 = I$

$9 = A$

$135 = A$

$175 = K$

$41 = R$

$332 = I$

$405 = S$

$26 = T$

$70 = A$



Aurki itzazu neska-mutilen izenak

i	t	s	a	s	o	m	o	n	t	e	s	d	z	Ñ
r	e	b	e	k	a	a	l	s	j	o	n	r	m	I
e	n	e	k	o	s	t	k	h	s	w	m	N	s	X
n	b	k	x	a	l	B	n	e	s	t	m	l	r	A
e	g	o	i	T	z	h	e	a	o	p	n	o	t	B
p	N	s	s	r	t	j	s	u	t	n	m	n	s	b
a	t	c	o	r	z	k	t	p	m	a	l	A	I	K
u	u	t	z	o	r	l	o	t	z	n	l	m	h	A
l	i	z	a	r	n	e	r	s	t	u	w	i	l	A
a	b	o	y	s	r	r	o	g	i	r	l	s	a	m

Hamahiru urte luze jarrera onean
izan zaretelako gure aldamenean

esan nahi dizuegu azken egunean:
zuen etxera itzuli nahi dizuenean.

Haurtzaro Ikastola



Aurretik atzera eta ezkerretik eskuinera

LEHENENGO ILARAN: Itsaso Mendiburu,
Ugaitz Susperregi, Shandra Gonzalez,
Gorka Mitxelena, Maria Redondo, Ander Aranburu,
Aintzane Toledo, Beñat Olaizola, Udane Susperregi
eta Irati Isasa.

BIGARREN ILARAN: Jon Ondaro, Peio Kazabon,
Izar Alzpuru, Jara Garzia, Mikel Moreno,
Maialen Ibargolen, Amaia Ostolaiz, Aia de la Peña,
Ian Estebaranz, Uxue Barrenetxea,
Mikel Aranburu eta Jaione Alkain.

HIRUGARREN ILARAN: Iker Abelaiz,
Beñat Eskamendi, Lierni Etxebeste, Haizea Gonzalez,
Ane Garzia, Mikel Zapirain, Eneko Orkaizagirre,
Goliatz Aramendi, Garazi Lasarte, Olaia Santxez,
Garazi Olaizola eta Jasone Gomez

LAUGARREN ILARAN: Julen Azkue,
Unai Azpiroz, Beñat Trigo, Andoni Ugalde,
Jon Cortes, Mikel Gonzalez, Irati Huitzi,
Alaitz Aguilarr, Uxue Agirre eta Ziortza Salaberria.

Zorionak graduatu berriei! Zoririk handiena opa dizuegu!



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



GARBITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialeko
2. Pabiloia - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@alocom.net

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065

Polígono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



AGENTS EN TANTO NAZIOARTEKO
GESTION INTERNACIONAL POLIGONO TALAIA



EDIFICIO INDUSTRIAL - EDIFICIO 24
1-140-490-555 - 4-140-490-555
1-140-490-555 - 4-140-490-555
20180 OIARTZUN (GUZUEN)